

SUKALDEA

Keak keari bultza egiten dio, sukaldean toki bila dabil airea putz eta putz eginez, zurrunbiloka itotzen du giroak arnasa. Su txinparten argiak muxu ematen die leiho ttikian barna saltoka datozen eguzki izpiei.

Eguerdia da eta epel egiten du gaur. Polita esnatu da eguna, sukalde barruko iluntasun grisean hori nabari ez den arren. Beheko errekatik bueltan iritsi berri da Kattalin ur-ontzia buru gainean hartuta. Laratza prest du su gainean.

Laster iritsiko da Martintxo jolasetik kontu-kontari, ama eta ama. Gaur ere ibiliko da txori ehizan harriekin tiro hemen eta tiro han. Kattalinek esaten dio txoriak bake-bakean utzi behar dituela, kantu gozo direla, belarri goxagarri. Domingok, berriz, aitak, xaxatu egiten du, zirikatu, sokari tira horrela eta hala egin behar diola. Bat, bi, hiru zenbat bota dituen.

Baina, gaur saltoka ez, burumakur iritsi da Martintxo; burumakur sartu da sukaldean, ke sasi guztiak buru gainean kateatu nahiko balitu bezala. Amaren gonapean sartu du burua Martintxok eta malko bat eta malko bi xukatu ondoren, amak buruko ileak nahastu dizkio laztan eta laztan.

- Ama, zer da eskola?
- Eskola... eskola... eskola mundua da Martintxo.
- Nik ez dut mundura joan nahi, ama. Ni ondo nago Igartubeitin.

Amak oparitu zion egurrezko goilararekin eragin eta eragin ari da Kattalin.

- Munduak leiho berriak irekiko dizkizu. Igartubeititik ezer gutxi ikusten da.

Orduantxe sartu da Domingo sukaldean. Eztul bat eta bi eztul egin ditu sukaldeko ke artean, zizeiluan eseri eta bota du:

- Anduaga auzoan eskola jarriko dute, Martintxo. Ikusiko duzu, mundua ezagutuko duzu eskolan.

Eta negarrez hasi da Martintxo berriro, ezetz eta ezetz, berak ez duela eskolara joan nahi esanez, mundua handiegia dela eta galdu egingo dela.

- Aita, munduan gainera, ez dago Igartubeitin bezalako txoririk.